## GAURKO FILMEAK

# Arratsalde bat Yves Montandekin

ANDRES GOSTIN

Yves Montandek izango du gaurko protagonismoa France 3 kateak aktorearen bi filme eskainiko baititu: 'Vincent, François, Paul et les autres', eta Costa Gavras lagun minaren eta Simone Signoret emaztearen konpainian errodatu zuen 'Compartiment tueurs' poliziako atsegina. Zuzendariaren estreineko lana izan zen. Aurrera segitzen du, gainontzean, Torre Nilssonen ziklo ederrak.

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 10.30 | T5 | ○ | PIM, PAM, PUM FUEGO | 1975 | Pedro Olea | 99 m. |
| 10.30 | TVE2 | ○ | CALABACITAS TIERNAS | 1948 | G.Martinez Solares | 96 m. |
| 15.30 | ETB2 | ○ | EL GENDARME DESCONOCIDO | - | Miguel M.Moreno | - |
| 15.30 | A3 | ○ | EL CERRO DE LOS LOCOS | 1959 | Agustin Moreno | - |
| 16.30 | TVE2 | ○○ | LA CASA DE JEANNE | 1987 | Magali Clement | 84 m. |
| 18.35 | TVE1 | ○ | 091,POLICIA AL HABLA | 1961 | J.M. Forque | 93 m. |
| 20.35 | C+(f) | ○○ | LES CLES DU PARADIS | 1991 | Phillipe de Broca | 95 m. |
| 20.45 | F3 | ○○○ | VINCENT, FRANCOIS, PAUL ET LES... | 1974 | Claude Sautet | 115 m. |
| 20.45 | M6 | ○○○ | LE BON, LA BRUTE ET LE TRUHAND | 1966 | Sergio Leone | 155 m. |
| 21.00 | ARTE | ○○○ | LA COMMISSARIE | 1967 | Alexandre Askoldov | 105 m. |
| 22.00 | C+(e) | ○○ | HOUSE III | 1989 | James Isaac | 94 m. |
| 22.10 | F2 | ○○○ | FLIC STORY | 1975 | Jacques Deray | 110 m. |
| 22.15 | TVE2 | ○ | LA NOCHE DE HALLOWEN | 1978 | John Carpenter | 91 m. |
| 22.30 | T5 | ○○ | PORKY,S III LA VENGANZA | 1984 | James Komack | 92 m. |
| 23.20 | F3 | ○○○ | COMPARTIMENT TUEURS | 1964 | Costa-Gavras | 90 m. |
| 01.05 | TVE2 | ○○ | ANNE TRISTER | 1986 | Lea Pool | 98 m. |
| 01.30 | A3 | ○○ | NIEVE EN CAPRI | 1984 | Gian Luigi | 82 m. |
| 01.40 | TVE1 | ○ | NACIDA PARA AMAR | 1960 | Rogelio A.Gozanlez | 98 m. |

○ TXARRA — ○○ ESKASA — ○○○ BALEKOA — ○○○○ ONA — ○○○○○ BIKAINA

### LE BON, LA BRUTE ET LE TRUAND

**(Il Buono, il Brutto e il Cattivo)**
**Zuzendaria:** Sergio Leone. **Aktoreak:** Clint Eastwood, Eli Wallach, Lee Van Cleef.

Sergio Leoneren estiloa, Clint Eastwooden planta eta Ennio Morriconeren konpasa daramatzan trilogia ezagunaren hirugarren eta azken zatia da, benetako *spaguetti western*-aren azken titulu kuriosoa, Leonek berak Henry Fonda eta Charles Bronsonekin handik urte mordoskora errodatu zuena albo batera utzirik. Italiarrak aurreko bi obretako estiloa eta pertsonaiak berreskuratu zituen altxor baten ondoren hiru gaizkilek beteko duten abentura pantailaratzeko. Ezaugarriek ez dute beste munduko sekreturik, ordea: indarkeria soberan, esaldi finak (pistola eta palaren arteko hitz jokoa, esaterako), hautsa ugari, sentimendu eta moral gutxi... Eta Eastwooden piura berezia, noski.

### LA COMMISSAIRE

**Zuzendaria:** Alexandre Askoldov. **Aktoreak:** Nonna Mordioukova, R. Bykov, R. Nedatxkoskaia.

Gobernu sovietar ohiak hogei urtez zentsuratuta eduki zuenetik, filme madarikatuen zerrenda gizendu du Alexandre Askoldoven lehen eta azken obra honek. Zuzendaria lur jota geratu omen zen aita, komunista izatez, fusilatu zutenean. Filmeak iraultzailearen fanatismoari buruzko kronika izan nahi du berez, eta Gerra Zibileko pasarte nobelatua hartzen du horretarako, Vassili Grossmanek idatzia. Askatasuna eta justiziaren aldeko irudia da pelikula.

### LA NOCHE DE HALLOWEEN

**(Halloween)**
**Zuzendaria:** John Carpenter. **Aktoreak:** Donald Pleasance, Jamie Lee Curtis, Nancy Loomis.

Gaur egun modan jarri den pshyco-killer azpigeneroaren ezaugarri nagusienak markatu zituen zenbait zirkulutan kultuko bihurtu den pelikula ezagun honek. Protagonistak begi bistakoak dira, dagoeneko: haurtzaroko traumak gainetik kendu ezinean dabilen psikopata krudela, eta trauma hori bapatean pizten duten biktima errugabe eta gazteak. Carpenterrek hildakoen eta sexualitatearen kontrapuntua jarri zuen filmearekin, Halloweeneko gaua (hilen eguna Estatu Batuetan) eta gazteen komeri lizunak uztartuz. Zuzendariaren mezua moralista samarra da alde horretatik, eta bere gainerako lanei gertatzen zaien bezalaxe, abusatu egiten du metazinemaz, Howard Hawksen zinemaren zita eta eraginez, bereziki.

### VINCENT, FRANÇOIS, PAUL ET LES AUTRES

**Zuzendaria:** Claude Sautet. **Aktoreak:** Yves Montand, Michel Piccoli.

Hirurogeitamarreko hamarkadaren hasieran Frantzian sortu zen gizarte klase berriaren margolari zinematografikoa izan da Claude Sautet azken hogei urteotan. Zuzendari frantsesa guztiz ezezaguna da Hegoaldean, baina gutxik deskribatu dute bere dotoreziarekin Maiatzeko mugimenduen ostean bertako bizimoduaren protagonista bihurtu zen gizarte klase erdi moralista erdi burges berri horren izaera. Bi lagun edadeturen bizimoduak erretratatuko ditu horretarako, elkarrenganako adiskidetasuna, emakumeekiko jarrera, urteen joan-etorri astuna eta inguruko kezka eta arazoak. Montand eta Piccoli primeran aritu ziren, eta sinesgarritasuna eman zioten Sauteten tonu poetikoari edade batera iritsi ondoren astun egiten den bizimodua isladatzerakoan.



TF1
LE JAP
JUGE D'APPLICATION DES PEINES
Telesail berria 20.45



C+(e)
PRIMOS LEJANOS
Kapitulu berriak 21.00



ETB1
BOXEO IZARRAK
Paul Atkinson 22.10



TVE2
METROPOLIS
Siggraph 92 00.35

**M6**

06.45: **6 minutes permanent.** 07.15: **Contact 6 manager.** 07.20: **Samouraï pizza cats.** 07.45: **Le tour du monde en 80 jours.** 08.15: **Boulevard des clips.** 09.00: **M6 express.** 09.05: **Infoconsommation.** 09.10: **M6 boutique.** 10.50: **Cagney et Lacey.** 11.50: **Papa Schultz.** 12.20: **ma sorciére bien-aimée.** 12.50: **madame est servie.** 13.20: **Drôles de dames.** 14.15: **Les années FM.** 14.45: **Destination musique.** 17.00: **Zygopolis.** 17.30: **Campus show.** 18.00: **Equalizer.** 19.00: **Les routes du paradis.** 19.54: **6 minutes.** 20.00: **madame est servie.** 20.35: **Météo 6.** 20.45: **'Le Bon, la brute et le truand'. Filmea.** 23.35: **L'heure du crime.** 00.30: **6 minutes première heure.** 00.35: **Fréquenstar.** 02.00: **Voir et revoir la france.** 02.55: **Culture pub.** 03.20: **Culture rock.** 03:55: **World Philarmonic Orchestra.** 04.50: **Cheval mon ami.** 05.15: **Thèbes capitale de l'empire.**

**CANAL+**

07.00: **CBS Evening News.** 07.25: **Canaille peluche.** 07.50: **Ça cartoon.** 08.05: **24 heures.** 09.00: **'Les brancxhes de l'arbre'. Filmea.** 10.55: **Flash info.** 11.00: **Fureur douce.** 12.30: **La grande famille.** 13.35: **'Urga'. Filmea.** 15.30: **L'oeil du cyclone.** 15.55: **'Malarek'. Filmea.** 17.35: **Le journal du cinéma.** 18.00: **Canaille peluche.** 18.30: **Ça cartoon.** 18.50: **Le top.** 19.20: **Nulle part ailleurs.** 20.30: **Le journal du cinéma.** 20.35: **'Les clés du paradis'. Filmea.** 22.15: **'Les maîtres de l'ombre'. Filmea.** 00.15: **'Embrasse-moi vampire'. Filmea.** 01.50: **'La tête du tyran'.**

**arte**

19.00: **«Pasqua» olmeta.** 19.55: **Monty Python's flying circus.** 20.30: **8 1/2 journal.** 20.40: **Que sont les soviétiques devenus?** 20.45: **Interview d'Alexandre Yakovlen.** 21.00: **'La commissaire'. Filmea.** 22.45: **Interview de Boris Kagarlitski.** 23.00: **Le miroir éclaté.**

**TELE 5**

07.10: **Entre hoy y mañana.** 07.30: **Desayuna con alegría.** 09.30: **Alicia.** 10.00: **Entre platos anda el juego.** 10.30: **Cine corazón: 'Pim, pam, pum fuego'. Filmea.** 12.30: **María de nadie.** 13.20: **A mediodía alegría.** 13.50: **Los Ropper.** 14.20: **Queridos padres.** 14.55: **Entre hoy y mañana.** 15.30: **Las dos dianas.** 16.20: **Se acabó la siesta.** 17.35: **Super guay.** 19.30: **Hablando se entiende la basca.** 20.00: **Su media naranja.** 20.45: **Telecupón.** 21.05: **La loba herida.** 22.00: **Contacto, con tacto.** 22.30: **Amor, humur y música: 'Posky's III, la venganza'.** 00.20: **Entre hoy y mañana.** 00.45: **Pressing futbol: Liverpool-Spartak de Moscu.** 02.30: **F. B. I.** 03.20: **La extraña pareja.**

**ANTENA 3**

07.30: **La guardería.** 09.30: **Viva la vida.** 10.00: **Atrévete.** 10.45: **Cara sucia.** 11.30: **Vivir, vivir.** 12.40: **Santa Bárbara.** 13.30: **Supermarket.** 14.00: **Por estas calles.** 15.00: **Noticias.** 15.30: **'El cerro de los locos'. Filmea.** 17.30: **La merienda.** 18.30: **Jinete Neón.** 19.30: **La ruleta de la fortuna.** 20.00: **Mi hermana Sam.** 20.30: **Noticias.** 21.00: **Las aventuras del joven Indiana Jones.** 22.00: **Farmacia de guardia.** 22.30: **De tu a tu.** 00.00: **Noticias.** 00.30: **En el calor de la noche.** 01.30: **'Nieve en Capri'.**

**CANAL+**

08.00: **ABC World News.** 08.30: **La aldea de Arce.** 09.00: **Videominuto.** 09.52: **Redacción.** 10.00: **'Muerte entre las flores'. Filmea.** 11.50: **'¿Qué fue de Babay Jane?'. Filmea.** 13.24: **Piezas.** 13.30: **Los 40 principales.** 14.00: **Redacción.** 14.05: **Los gatos del espacio.** 14.30: **Los primetos de la clase.** 15.00: **'Mo'Better Blues'. Filmea.** 17.05: **¿Más alto que en el Everest? Dokumentala.** 18.01: **'Moonwalker'. Filmea.** 19.35: **Bitelchus.** 20.00: **Redacción.** 20.05: **Los 40 principales.** 20.30: **Alf.** 21.00: **Primos lejanos.** 21.28: **Información metereológica.** 21.30: **Redacción.** 22.00: **'House III'.** 23.31: **'Loca academia de policia VI'.** 00.52: **'Objeto de seducción'.**

## IRRATIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Arrate Irratia. | FM 87.7 | Gure Irratia. | FM 106.6 |
| Bizkaia Irratia. | FM 102.6 | Irulegi Irratia. | FM 91.08 |
| Egin Irratia. | FM 103.0 | Segura Irratia. | FM 89.2 |
| Euskadi Irratia. | OM 1.161 | Xiberoko Botza. | FM 88.8 |
| Euskalerria Irratia. | FM 91.4 | Xorroxin Irratia. | FM 107.5 |
| Gipuzkoa Herri Irrat. | FM 99.8 | Iruñeko Herri Irratia. | FM 87.6 |

**Arrate Irratia.** Aitona-amona eta gaixoek galdu ezinezko zita bat daukate 'Gora bihotzak' irratsaioarekin, goizeko hamar t'erdietatik aurrera. 'Arratsaldean zuekin' saioak arratsalde atsegina pasatzeko aukera eskainiko digu, laurak eta laurdenetan hasita. Era guztietako musikek, elkarrizketek, erreportaiek eta abarrek osatuko dute irratsaio hori. Gaueko bederatzietan, kontu kontari arituko da Txomin Garmendia 'Berriketan' saioan.

**Xorroxin Irratia.** Eguna argitzearekin batera, albiste garrantzitsuenen berri emango digute 'Goiz argi' saioan. Goizeko zazpi t'erdietatik bederatzi t'erdietara luzatzen den irratsaio horretan, albisteez gain izango da besterik ere: txisteak, eguraldi iragarpenak, nekazaritza kontuak, gai desberdinen azterketa... Jarraian eta hamarrak bitartean, musika izango da entzungai. Eguerdiko hamabietatik ordubiak bitartean, Elizondo, Lesaka eta Bera inguruetan izandako albiste garrantzitsuenak ezagutzeko aukera izango da.

**Bizkaia Irratia.** 'Aupa Bizkaia!' irratsaioak emango dizkigu egunonak goizeko zazpietan. Dorleta Alberdik eta Asier Muniategik gidatzen duten 'Enbido' magazina, eguerdiko hamabietatik ordubiak bitartean izango dugu entzungai.